



01

EMAITZAK ETA AZTERKETAK

>>>

EUSKARAREN KALE ERABILERA BIZKAIAN

Patxi Juaristi

EHU

Helbide elektronikoa: zipjulap@lg.ehu.es

2001etik gauzak ez dira asko aldatu Bizkaian, euskararen kale erabilerari dagokionez. Urte hartan gutxi gora-behera hamar bizkaitarretik batek (%11) euskaraz hitz egiten zuen kalean, eta bost urte beranduago, 2006an, antzerako egoerarekin aurkitzen gara. Alegia, gaur egun ere hamar bizkaitarretik batek (%10,4) euskaraz berba egiten du kalean. Orain dela bost urte bezala, Euskal Herriko herrialdeen artean, Bizkaia tarteko egoeran dago euskararen kale erabilerari dagokionez; izan ere, bizkaitarrak gipuzkoarrak (%32,7) baino erdaldunagoak dira, baina arabarrak (%4,7), nafarrak (%6,6) eta iparraldekoak (%4,6) baino euskaldunagoak.

Egoera ez dela asko aldatu esan dut, baina egia esan, euskararen kale erabilera, apur bat bada ere, jaitsi egin da Bizkaian, 2001. urtetik 2006ra. Hain zuzen ere, %11tik %10,4ra jaitsi da. 1989tik euskararen kale erabilerara gora joan da etenaldi edo geldialdirik gabe, baina badirudi, oraingo honetan, joera orokor hau aldatu egin dela.

Ikusi egin beharko da euskararen kale erabileraren jaitsiera txiki hau momentuko zerbait den edo beheranzko joera orokor bat erakusten duen. Dena dela, uka ezina da Euskal Herrian, bere osotasunean hartuta, euskararen erabilerak gora egin duela (%13,5etik %14,2ra), baina Bizkaian, Iparraldean bezala, erabilerak beherako bidea hartu duela (%11tik %10,4ra).

1989	8,1
1993	9,1
1997	9,7
2001	11
2006	10,4

Egia esan, Iparraldean euskararen kale erabilerak atzera egin izanak ez nau asko harritu. Aspalditik dakigu euskararen galera nabaria dela Iparraldean. Euskara ez da hizkuntza ofiziala eta, gainera, egunetik egunera indarra galtzen ari da, oso azkar gainera. Orain arte euskarak familiar, lagunartean eta gertuko komunitatean indarra izan badu ere, gero eta baztertuago gelditzen ari da.

Aldiz, Bizkaian euskararen kale erabilerak atzera egin izanak asko harritu nau. Izan ere, euskararen ezagutzari dagokionez, Bizkaiko euskaldunen kopurua gora doa atzera pausorik, etenik edota geldialdirik gabe. Eustatek ematen dituen datuen arabera, 1981. urtean bizkaitarren %14,88 zen euskalduna eta 20 urte beranduago %24,96. Gero eta euskaldun gehiago izanda, pentsatzekoa zen euskararen erabilerak ere aurrera egin behar zuela, baina ez da horrela izan. Euskaraz hitz egiteko gero eta gaitasun handiagoa dago Bizkaian, gero eta euskaldun gehiago dago Bizkaiko herri eta hirietan, baina euskararen erabilerak ez du aurrera egiten, eta euskaldun gehienek erdaraz hitz egiten jarraitzen dute. Hain zuzen ere, bizkaitarren %24,96 euskaraz hitz egiteko gai bada eta euskararen kale erabilera %10,4koa dela onartzen badugu, inolako beldurrik gabe esan genezake gutxi gora-behera bizkaitarren %15ak badakiela euskaraz, baina ez duela erabiltzen kalean. Bizkaian erdaraz hitz egiten duten euskaldunak gehiago dira, euskaraz hitz egiten duten euskaldunak baino.

	1981	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	14,88	17,48	18,94	23,73	24,96
Ia-euskaldunak	13,40	17,83	20,53	20,79	24,79
Erdaldunak	71,72	64,69	60,53	55,48	50,25
Bi urte eta gehiagoko Bizkaiko biztanleria guztira	1.153.031	1.153.989	1.136.358	1.121.600	1.097.288

Iturria: www.eustat.es

Egia esan, 2001etik 2006ra euskararen kale erabileran gertatu den geldialdi honek badauka nolabaiteko lotura Bizkaiko etxeetan gertatzen denarekin. Dazkagun azken datuen arabera, 1991tik 2001era Bizkaiko etxeetako euskararen erabilera apur bat bada ere jaitsi egin da. Hain

zuzen ere, 1991. urtean bizkaitarren %8,87k hitz egiten zuen euskaraz etxean eta 2001ean %8,59k. Euskaraz hitz egiteko gai direnen ehunekoa handitu bada ere (1991. urtean, bi urte eta gehiagoko biztanleriaren %18,94 zen euskalduna eta 2001ean %24,96), euskararen etxeko erabilera, apur bat bada ere, jaitsi egin da.

	1991	1996	2001
Euskara	8,87	8,61	8,59
Gaztelania	84,55	84,22	84,43
Biak	6,04	6,61	6,31
Beste bat	0,54	0,55	0,67
Guztira	1155106	1140026	1122637

Iturria: www.eustat.es

Bizkaiko euskaldunen artean ere jaitsi egin da etxean euskaraz egiten duten euskaldunen ehunekoa. Hain zuzen ere, 1991n euskaldunen %46,69k hitz egiten zuen euskaraz etxean eta 2001ean euskaldunen %34,14k. Euskararen kale erabilera 2001etik 2006ra jaisteak harritu egin nauela esan dut, baina, agian, onartu egin behar da gertaera logikoa dela, kontuan hartzen badugu Bizkaiko etxe euskaldunetan ere orain dela urte batzuk baino gutxiago hitz egiten dela euskaraz.

	1991	1996	2001
Euskaraz	46,69	36,10	34,14
Gaztelera	28,62	40,61	45,39
Bietan	24,59	23,18	20,34
Beste hizkuntza bat	0,10	0,11	0,12
Total	215219	266107	273872

Iturria: www.eustat.es

Euskararen kale erabilera bueltatuz, eta adin-taldeen artean dauden desberdintasunak aztertzen baditugu, lehenengo oihartzen garena da euskararen kale erabilerak behera egin duela adin talde guztietan. 5. taulan ikusten dugun bezala, haur, gazte, heldu zein adinekoek 2001. urtean baino gutxiago hitz egiten dute euskaraz kalean.

	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ADINEKOAK
1989	9,1	6,6	6,8	12,8
1993	11,7	7,8	7,6	12,3
1997	12,8	8	8,5	10,9
2001	16,5	9,5	9,3	11
2006	15,4	8,1	9,1	8,7

2001eko Soziolinguistika Inkestak erakusten duen bezala (Eusko Jaurlaritza, 2005), Bizkaiko euskaldunen kopurua gora doa, batez ere gazteen artean. Modu berean, euskararen transmisioa ia erabatekoa da guraso biak euskaldunak direnean. Areago, euskara gero eta gehiago transmititzen da bietako batek bakarrik dakienean, nahiz eta kasu horietan euskara eta gaztelania, biak batera, transmititzen diren. Gainera, urtez urte, handitzen doa euskarazko irakaskuntza ereduetan ikasten duten umeen eta gazteen kopurua.

Hala eta guztiz ere, euskararen kale erabilerak ez du aurrera egiten Bizkaiko haur eta gazteen artean. Zergatik gertatzen da hau? Zergatik haur eta gazte gehiagok ez dute euskaraz hitz egiten kalean? Arrazoiak asko dira, nire ustez. Dena dela, Bizkaian gertatzen ari dena modu laburtuan azaltzeko argigarria iruditzen zait Gotzon Garatek "Diglosiaren Ondorioak" izenburupean Argian astekarian zioena (2091. zenbakia, 2007-6-03): "(...)Euskara espainolaren eta frantsesaren ondoan bizi da. Prestigio txikiago du eta alor askotan (...) espainola eta frantsesa baino askoz gutxiago erabilia izan da.

(...)Gazteek ez dute euskaraz egiten. Zergatik? Diglosian bizi garenez gero, espainolez errazago egiten dutelako. Bermeon, adibidez, lehengo egunean *Deia* egunkariak esaten zuenez «euskararen erabilera %60koa da, nahiz eta gazteriaren herenak baino ez duen ahotan». Ondarroan ere gauza bertsua gertatzen omen da. Eta beste herri askotan ere bai (...).

Diglosiak dakarren birusa: jendeak hizkuntza nagusiz pentsatzen duela".

Diglosiak haur eta gazteengan duen eraginarekin batera, iruditzen zait belaunaldi berriek aldatu egin dutela euskararekiko jarrera. Alegia, euskararen irudi soziala aldatu egin da, batez ere gazteen artean. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2006an atera zuen 2005-2009 egitasmoak zioen bezala (2005:22): "Geure baitako mugez hitz egiterakoan ezin ahaztu, ezta ere, euskararen irudi sozialari dagokionean ere eboluzio guztiek ez dutela onera egin. Halatan, frankismo bukaerako urteetan, esate baterako, jarrera aurrerakoi eta abangoardiakoekin identifikatzen zen euskararen mundua. Frankismo garaia ezagutu ez eta, euskararekiko lotura konpromiso ideologikoetatik urruti, oso modu naturalean hartu duten belaunaldi berrikoek urte haietan ikusten zen moduan ikusten dute hori?" Galdera honi ezetz erantzungo nioke nik. Izan ere, iruditzen zait euskara modu naturalean hartu duten belaunaldi berriek frankismo ostean hazitakoek baino gutxiago baloratzen dutela euskara. Eta horrek eragin zuzena duela erabileran.

Helduen artean ere euskararen erabilerak ez du aurrera egin 2001etik. Diglosiak duen eragina ahanzi gabe, onartu egin behar da bizkaitarren %50,25ak ez dakiela ezertxo ere euskaraz, eta hori gutxiengo harremanak ere euskaraz egiteko oztopo garrantzitsua dela (egunon edo gabon esateko edo tabernetan gauza errazak eskatzeko, adibidez). Horre-

Gero eta euskaldun gehiago izanda, pentsatzekoa zen euskararen erabilerak ere aurrera egin behar zuela, baina ez da horrela izan. Euskaraz hitz egiteko gero eta gaitasun handiagoa dago Bizkaian, gero eta euskaldun gehiago dago Bizkaiko herri eta hirietan, baina euskararen erabilerak ez du aurrera egiten, eta euskaldun gehienek erdaraz hitz egiten jarraitzen dute.

•

Euskararen kale erabilera 2001etik 2006ra jaisteak harritu egin nauela esan dut, baina, agian, onartu egin behar da gertaera logikoa dela, kontuan hartzen badugu Bizkaiko etxe euskaldunetan ere orain dela urte batzuk baino gutxiago hitz egiten dela euskaraz.

Aipatzekoa da adinekoen artean eman diren jaitsierarik nabarmenenak Bizkaian (%11tik %8,7ra) eta Gipuzkoan (%25,3tik %22,6ra) gertatu direla; hau da, 60. hamarkadan etorkin gehien hartu zituzten euskal probintzietan. Zentzu honetan, nire iritzia da Bizkaian eta Gipuzkoan biztanleri autoktonoa hiltzen joan dela, eta, beraz, euskara eguneroko hizkuntza gisa erabiltzen zutenen talde garrantzitsu bat desagertu ari dela. Bestalde, 60. hamarkadan Bizkaira eta Gipuzkoara Estatuko beste zonalde batzuetatik etorri ziren etorkinak sartu dira adinekoen taldean, eta horiek euskararen ezagutza gutxi dute. Pentsatzekoa da hurrengo neurketan erabilera are eta gehiago jaitsiko dela adin talde honetan.

kin batera, ikasketak erdaraz egin izana, euskararen indar sozial mugatua eta gure hizkuntz jarreraren eta jokabidearen arteko aldeak erabilerak aurrera egitea oztopatzen dute (Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001).

Adin taldeen arteko desberdintasunekin bukatuz, aipatzekoa da euskararen kale erabileraren jaitsierarik nabarmenena adinekoen artean gertatu dela. Bizkaiko adinekoen %11k hitz egiten zuen euskaraz kalean 2001ean eta %8,7ak 2006an. Honetan Bizkaia ez da desberdina Euskal Herriko beste herrialdeekiko. Izan ere, Euskal Herriko herrialde guztietan egin du behera adinekoen euskararen kale erabilerak. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da adinekoen artean eman diren jaitsierarik nabarmenenak Bizkaian (%11tik %8,7ra) eta Gipuzkoan (%25,3tik %22,6ra) gertatu direla; hau da, 60. hamarkadan etorkin gehien hartu zituzten euskal probintzietan. Zentzu honetan, nire iritzia da Bizkaian eta Gipuzkoan biztanleri autoktonoa hiltzen joan dela, eta, beraz, euskara eguneroko hizkuntza gisa erabiltzen zutenen talde garrantzitsu bat desagertu ari dela. Bestalde, 60. hamarkadan Bizkaira eta Gipuzkoara Estatuko beste zonalde batzuetatik etorri ziren etorkinak sartu dira adinekoen taldean, eta horiek euskararen ezagutza gutxi dute. Pentsatzekoa da hurrengo neurketan erabilera are eta gehiago jaitsiko dela adin talde honetan.

Udalerriaren biztanle kopuruaren arabera desberdintasunak aztertzen baditugu, argi dago herri txikiak direla euskaldunenak. 6. taulan ikusten dugun bezala, 5000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko herrietako biztanleriaren %26,7ak hitz egiten du euskaraz kalean. Hala eta guztiz ere, gogoan hartzekoa da 2001etik euskararen kale erabilera jaitsi egin dela 50.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan eta, aldiz, handitu egin dela 50.000 biztanle baino gehiagokoetan. Bereziki aipatzekoa da 100.000 biztanle baino gehiagoko hirietan euskararen kale erabilera gertatu den hazkundera. Hain zuzen ere, %3,77tik %4,19ra pasatu da. Ez da hazkunde oso handia, baina nolabaiteko tendentzia erakusten du, nire ustez. Alegia, badirudi hiri handietan, hau da, euskaldun berri gehien dagoen tokietan euskararen aldeko kontzientzia handiagoa dagoela, eta horrek euskararen kale erabilera bultzatzen duela. Aldiz, euskaldun zaharrak ugariago diren lekuetan alderantziz gertatzen da: euskara gutxiago baloratzen da eta, ondorioz, gutxiago erabiltzen da. Lehen esan bezala, badirudi euskara modu naturalean hartu ez dutenek euskara etxean ikasi dutenek baino gehiago baloratzen dutela hizkuntza, eta horrek erabilera bultzatzen duela.

6. TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERA BIZKAIA 1993TIK 2006RA UDALERRIAREN BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA (%)

	5000 baino gutxiago	5000-10.000 biztanle	10.000-25.000 biztanle	25.000-50.000 biztanle	50.000-100.000 biztanle	100.000 biztanle baino gehiago
1993	31,7	12,38	18	4,54	2,19	3,48
1997	34,4	12,80	20,61	2,69	2,71	3,58
2001	28,1	15,18	26,71	6,58	3,46	3,77
2006	26,7	13,48	22,85	5,26	3,74	4,19

Euskal Herrian orain arte egin diren hiru inkesta soziolinguistikoek erakutsi duten bezala, euskara erabili ahal izateko faktorerik garrantzitsuenak dira sarean dagoen elebidun-dentsitatea, batetik, eta euskaraz hitz egiteko trebetasuna, bestetik. Udalerriaren euskararen ezagutza mailaren arabera desberdintasunak aztertzen baditugu, argi ikusten dugu oraingo honetan ere elebidun-dentsitateak eragin zuzena duela erabileran. Zenbat eta elebidun gehiago izan inguruan, are eta handiagoa da euskararen erabilera. Ondoren aurkezten dugun taulan ikusten den bezala, euskararen ezagutza %0-25 tartean dagoen udalerrietan biztanleriaren %4,3k erabiltzen du euskara kalean; aldiz, euskararen ezagutza %75-100 tartean dagoen udalerrietan euskararen kale erabilera %61,9koa da.

7. TAULA: EUSKARAREN KALE ERABILERA BIZKAIA 1993.TIK 2006.ERA UDALERRIAREN EUSKARAREN EZAGUTZA MAILAREN ARABERA (%)

	Ezagutza %0-25	Ezagutza %25-50	Ezagutza %50-75	Ezagutza %75-100
1993	3	13,5	32,3	63,4
1997	3	16,7	35,7	64,3
2001	4	20,8	36,8	63,2
2006	4,3	13,6	32,6	61,9

Aipatzekoa da euskararen ezagutza txikiena duten udalerrietan igo dela bakarrik euskararen kale erabilera. Hain zuzen ere, %0-25eko ezagutza dagoen udalerririk bizkaitarretan, euskararen erabilera %4tik %4,3ra pasatu da. Ez da igoera oso nabarmena, baina, nire ustez, zerbait adierazten du. Besteak beste, igoera honek erakusten duena da euskara ahulena dagoen tokietan euskararen aldeko kontzientzia dagoela, eta horrek erabilerari igoera bultzatu duela. Bestalde, udalerririk erdaldunenetan euskaldun berrien kopurua udalerririk euskaldunagoetan baino handiagoa dela onartzen badugu, pentsatu daitekeena da euskaldun berriek euskaldun zaharrek baino gehiago baloratzen dutela hizkuntza, eta horrek kalean euskara erabiltzera bultzatzen dituela.

1986. urtean euskara etxean ikasten zuten bizkaitarren ehunekoa %16,9 zen eta 2001ean %16,93 (bizkaitarren %13,40aren ama hizkuntza euskara zen eta %3,53arena euskara eta erdara). Hots, jatorriz euskaldunak diren bizkaitarren ehunekoa ez da aldatu 15 urtetan. Dena dela, 2001. urtean biz-

kaitarren %24,96 euskalduna zela kontuan hartzen badugu, argi dagoena da Bizkaiko euskaldunen zati handi bat ez dela etxean euskaldundu. Pentsa daitekeena da Bizkaiko biztanleriaren %8,03 euskaldun berria dela eta eskolan edo euskaltegian euskaldundu dela. Hauek dira, nire ustez, euskararen aldeko kontzientzia handiena dutenak, eta erabileraren aldeko apustu sendoena egiten dutenak. Badirudi euskara ordu eta ahalegin askoren ostean ikasi duen bizkaitarren %8,03 horrek euskararekiko jarrera hobea duela, ondorioz, euskara gehiago erabiltzen duela kalean.

	1986	1991	1996	2001
Euskara	13,86	13,85	13,62	13,40
Gaztelania	81,26	81,64	81,30	81,31
Biak	3,08	2,91	3,32	3,53
Beste bat	1,79	1,60	1,77	1,76
Bizkaiko biztanleria guztira	1.179.150	1.155.106	1.140.026	1.122.637

Iturria: www.eustat.es

EUSKARAREN KALE ERABILERA BILBON

Bizkaia osoan bezala, Bilbon ere asko handitu da euskaldunen kopurua. Eustatek emandako datuen arabera, 2001. urtean 53.000 euskaldun bizi ziren Bizkaiko hiriburuan, 1981ean baino 29.072 euskaldun gehiago. Alegia, bi urte eta gehiagoko bilbotarren %6,25 zen euskalduna 1981ean eta %15,49 2001ean. Hala eta guztiz ere, argi dago Bilbo Bizkaia bere osoan hartuta baino erdaldunagoa dela. Izan ere, 2001. urtean bizkaitarren %24,96 zen euskalduna eta bilbotarren %15,49.

	1981	1986	1991	1996	2001
Euskaldunak	6,25	9,07	9,63	14,37	15,49
Ia-euskaldunak	15,22	20,33	22,21	23,35	26,64
Erdaldunak	78,53	70,60	68,16	62,28	57,87
Bi urte eta gehiagoko Bilboko biztanleria guztira	383817	374207	364075	353195	342382

Iturria: www.eustat.es

Nahiz eta zenbaki absolutuetan Bilbon bizi den euskaldun kopurua handia den (53.000 euskaldun inguru), Bizkaia osoan baino gutxiago hitz egiten da euskaraz (bizkaitarren %10,4ak euskaraz hitz egiten du kalean eta bilbotarren % 4,3ak). Euskaldunen ehunekoia Bizkaia osoan baino txikiagoa den heinean (%15,49 Bilbon eta %24,96 Bizkaian), gutxiago dira euskaraz harremanak egiteko edota euskara erabiltzeko aukerak. Zenba-

ki absolutuetan euskaraz dakitenen kopurua handia bada ere, Bilboko euskaldunak galdu egiten dira erdararen itsaso zabalean. Hala ere, Bilbo, Gasteiz (%4) eta Iruñea (%2,8) baino euskaldunagoa da; hori bai!, Donostia (%18,2) baino erdaldunagoa da.

Ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea aztertzen badugu, ikusten duguna da Bilbotarren %11,19ak euskaraz dakiela baina ez duela kalean erabiltzen. Hau da, Bilboko biztanleen %15,49ak euskaraz hitz egiteko gai da, baina erabilera %4,3koa da. Zentzu honetan, bilbotarrak bizkaitarrak baino erdaldunagoak direla esan badut ere, azpimarratzekoa da Bilbon Bizkaia osoan baino apur bat txikiagoa dela euskaraz jakin eta kalean hitz egiten ez dutenen ehunekoa (gogoratu Bizkaitarren %15ak euskaraz jakin arren ez duela kalean hitz egiten). Agian, Bilboko euskaldunek bizkaitarrek baino euskararen aldeko kontzientzia apur bat handiagoa dute, hain zuzen ere, euskara ikastea gehiago kostatu zaielako eta, gainera, euskaraz aritzeko arazo gehiago dituztelako.

Bizkaia osoan bezala, euskararen erabilera, apur bat bada ere, jaitsi egin da Bilbon 2001. urtetik 2006ra. Hain zuzen ere, %4,6tik %4,3ra jaitsi da Bilboko kaleetan euskaraz berba egiten dutenen ehunekoa. Hego Euskal Herriko beste hiru hiriburuetan erabilerak gora egin du 2001.etik 2006ra, baina Bilbon jaitsi egin da.

Euskararen aldeko kanpainak euskara transmititzearen eta babestearen garrantzia hedatu dute, eta horrek eragin positiboa izan du haurrekin dauden nagusien euskararen erabileran. Euren artean gaztelaniaz hitz egiten duten bikote askok ere euskaraz hitz egiten diete umeei. Inolako beldurrik gabe esan daiteke umeak direla euskarak dituen bultzatzaile eta eragile garrantzitsuenetarikoak.

10. TAULA: EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA BILBON 1989TIK 2001ERA (%)

1989	2,5
1993	4,3
1997	4,5
2001	4,6
2006	4,3

Euskarazko irakaskuntza erduetan ikasten duten Bilboko umeen eta gazteen kopurua handitu bada ere, badirudi horrek ez duela eragin garbirik izan erabileran. Izan ere, Bilboko haurren eta gazteen artean atzera egin du euskararen erabilerak. Eta horren arrazoia da, nire ustez, Bilboko haur eta gazteek harremanak euskaraz egiteko aukera gutxi dutela. Gehienek erdaraz hitz egiten dute etxean, eta, bestalde, euskaraz aritzeko esparru eta ekintza erakargarri gutxi eskaintzen zaizkie kalean.

11. TAULA: EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA BILBON, ADIN-TALDEKA 1989TIK 2006RA (%)

	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ADINEKOAK
1989	3	2,3	2,4	2,4
1993	5,2	6,1	3,2	3,8
1997	6,9	5,1	4,4	1,8
2001	8,7	4,5	4,2	1,2
2006	7,6	3,5	4,3	1,6

Helduen eta adinekoen artean joera desberdina dago. Hain zuzen ere, adin talde bi hauetan euskararen erabilera gora egin du. Badirudi Bilboko euskaldun heldu eta adinekoek Bizkaiko beste toki batzuetan bizi direnek baino euskararen aldeko kontzientzia handiagoa dutela. Aurretik esan bezala, iruditzen zait Bizkaiko hiri handienetan, euskara ahulen dagoen tokietan eta euskaldun berri gehien dagoen lekuetan dagoela euskara erabiltzearen aldeko kontzientziarik handiena.

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunei dagokionez, Bilboko emakumezkoek gizezkoek baino euskararen erabilera apur bat handiagoa dute. Adin-talde guztietan Bilboko emakumeak gizezkoak baino gehiago hitz egiten dute euskaraz kalean.

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
HAURRAK	8,7	6,4
GAZTEAK	4,2	2,7
HELDUAK	4,6	3,8
ADINEKOAK	1,7	1,4

Emakume haur, gazte eta helduek gizezkoek baino erabilera altuagoak izatearen arrazoiatariko bat da, nire iritziz, oraindik ere emakumeak gizezkoak baino lotuago daudela etxeko esparruari. Arlo publiko eta pribatuaren arteko banaketatik abiatuz, oraindik ere emakumeak gizezkoak baino lotuago daude arlo pribatuari. Euskara arlo pribatuan publikoan baino gehiago erabiltzen dela kontuan hartzen badugu, ulertzekoa da arlo pribatuari gehiago lotuta daudenek euskaraz gehiago hitz egitea. Beste berba batzuekin esanda, emakumeek etxean denbora gehiago ematen dutenez, harreman gehiago dute euskararekin, eta ondorioz, gehiago hitz egiten dute euskaraz, baita kalean daudenean ere.

Emakume helduen kasuan, gainera, pentsatzekoa da gizezkoek baino denbora gehiago ematen dutela seme-alaben zainketan, eta ondorioz, denbora gehiago egiten dutela euskaraz hitz egiten. Euskaldunen artean umeei euskaraz egiteko joera dagoen heinean, umeekin denbora gehiago pasatzen dutenek gehiago hitz egiten dute euskaraz. Zentzu honetan, kontuan hartu behar da haurren presentziak eragin nabarmena duela euskararen kale erabileran. Ondoren aurkezten dugun taulan ikus daitekeen bezala, 2006an, biztanleriaren %7,3ak euskaraz hitz egiten zuen kalean haurrak aurrean zeudenean. Haurrik gabeko egoeretan erabilera %3,8ra jaisten zen.

	HAURRAK AURREAN DAUDENEAN EUSKARAREN ERABILERA	HAURRAK AURREAN EZ DAUDENEAN EUSKARAREN ERABILERA
2006	7,3	3,8

Euskararen aldeko kanpainak euskara transmititzearen eta babestearen garrantzia hedatu dute, eta horrek eragin positiboa izan du hurrekin dauden nagusien euskararen erabileran. Euren artean gaztelaniaz hitz egiten duten bikote askok ere euskaraz hitz egiten diete umeei. Inolako beldurrik gabe esan daiteke umeak direla euskarak dituen bultzatzaile eta eragile garrantzitsuenetakoak.

Belaunaldien arteko harremani dagokionez, kasuen %9,9an haur eta nagusien arteko harremanak euskaraz dira. Hau da, hamar bilbotarretik batek euskaraz hitz egiten die umeei. Aipatzekoa da 2001etik jaitsi egin dela umeei euskaraz egiten dien bilbotarren ehunekoa. Hain zuzen ere, 2001ean %11,7koa zen umeei euskaraz egiten zien bilbotarren ehunekoa eta 2006an %9,9koa da. Diglosiak duen eragina ahanzi gabe, onartu egin behar da bilbotarren %57,87k ez dakiela ezertxo ere euskaraz, eta hori harremanak euskaraz egiteko oztopo izugarria dela.

14. TAULA: BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANAK ETA EUSKARAREN ERABILERA BILBON

	HAUR-NAGUSI ERABILERA	HAUR-HAUR ERABILERA	HAURRAK AURREAN DAUDENEAN NAGUSI-NAGUSI ERABILERA
2001	11,7	2,6	2,1
2006	9,9	4,3	4,4

Kontuan hartzekoa da euskararen erabilerak gora egin duela Bilbon haurren arteko harremanetan. Hain zuzen ere, %2,1etik %4,3ra pasatu da haurren arteko euskararen kale erabilera. Eta hau, nire ustez, datu oso positiboa da. Izan ere, ingurune oso erdalduna izanda ere, badirudi Bilboko umeek gero eta euskara gehiago erabiltzen dutela euren arteko harremanetan. Dena dela, ezin dugu ahanzi haur bilbotarren euskararen erabilera asko jaisten dela nagusirik gabe daudenean (%9,9tik %4,3ra). Ume bilbotarrentzat oso zaila da erdaraz inguraturiko eremuan euskaraz aritzea, euskaraz hitz egiten duen norbait aurrean ez dagoenean.

Azkenik, gogoan hartzekoa da haurrak aurrean daudenean nagusien arteko harremanetan euskara 2001ean baino indartsuago agertzen dela. Hain zuzen ere, %2,1etik %4,4ra pasatu da haurrak aurrean daudenean euskaraz hitz egiten duten nagusien ehunekoa. Lehen esan bezala, umeak dira euskararen kale erabileraren bultzatzaile eta eragile garrantzitsuenetakoak.

LABURPEN GISAKO ONDORIO BATZUK

Euskaldunen kopuruak nabarmen egin du gora Bizkaian azken urteotan. Hala eta guztiz ere, errealitate gordina da Bizkaiko biztanleen erdiek ez dakitela euskaraz. Gainera, 2001ean 1991n baino gutxiago hitz egiten zen euskaraz Bizkaiko etxeetan. Zentzu honetan, ez da oso harrigarria euskararen kale erabilera apur bat jaitea 2001etik 2006ra.

Emakume haur, gazte eta helduek gizonezkoek baino erabilera altuagoak izatearen arrazoiatariko bat da, nire iritziz, oraindik ere emakumeak gizonezkoak baino lotuago daudela etxeko esparruari. Arlo publiko eta pribatuaren arteko banaketatik abiatuz, oraindik ere emakumeak gizonezkoak baino lotuago daude arlo pribatuari. Euskara arlo pribatuan publikoan baino gehiago erabiltzen dela kontuan hartzen badugu, ulertzekoa da arlo pribatuari gehiago lotuta daudenek euskaraz gehiago hitz egitea.

Askotan hitz egiten da euskarak Iparraldean dituen gabezi eta arazo-
ei buruz, baina, itxura guztien arabera, Bizkaian ere zerbait antzerakoan
gertatzen ari da; alegia, euskara indarra galtzen ari da eguneroko harre-
manetan. Diglosiak, belaunaldi berriek euskararekiko duten jarrerak edo-
ta euskararen indar sozial mugatuak eragin zuzena dute, nire ustez,
honetan. Are gehiago, iruditzen zait euskaldun zahar askok nahiko leial-
tasun gutxiz eta arduragabeki jokatzeko dutela hizkuntzarekin. Izan ere,
euskaraz hitz egiteko gai izan arren, ez dute euskara erabiltzen euren
eguneroko harremanetan.

Hauen aurrean, batez ere Bizkaiko hiri handienetan eta euskara ahu-
len dagoen herrietan bizi diren euskaldun berriak ditugu. Nire ustez,
hauek dute euskara erabiltzearen aldeko kontzientziarik handiena.
Gehiago esango dut, iruditzen zait euskararen berreskuratzea Bizkaian
hiri handietatik eta euskaldun berrien eskutik datorrela.

Gauzak horrela, beharrezkoa iruditzen zait euskaldun berri zein
zaharren aldeko neurri egokiak hartzea. Zentzu honetan, ezinbestekoa da
euskaraz hitz egiteko edota euskara sustatzeko ekimenak bultzatzea.
Euskaraz aritzeko esparru liberatuak eta euskarazko ekimen erakarga-
rriak sortu behar dira, batez ere ume eta gazteen aisialdira begira. III.
Mapa Soziolinguistikoa (2005:78) adierazten den bezala, “behar-beha-
rrezkoa da hiztunen hizkuntza-gaitasuna hobetzea eta elebidunei auke-
rak eskaintzea euskaraz jardun dezaten. Jomuga hori izanik, jarduera,
zerbitzu eta produktu atsegin gehiago euskaraz eskainiz gero, baliteke
kontsumitzaile eta erabiltzaileen ohiturak aldatzea, eta, horren ondorioz,
euskaraz mintzatzea ohiko izatea eguneroko jardueretan, besteekiko
harremanetan eta gure ohituretan ere bai”.■

AIPATUTAKO LIBURUAK

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundea
(2005): *Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001. Euskararen Jarrai-
pena III.*

Eusko Jaurlaritza - Eustat (2005): *III. Mapa Soziolinguistikoa. Eusko Jaur-
lartzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.*

Eusko Jaurlaritza: *Hizkuntza politika aurrera begira. Hizkuntza politikarako
Sailburuordetzaren 2005-2009 egitasmoa. Eusko Jaurlartzaren Argital-
pen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.*

Garate, G. (2007): “Diglosiaren Ondorioak”. *Argia*, 2091. zenbakia.